

GATUA

Teilatuan bi argi dirdira,
Patxi leihotik begira :
zer ote du gatuak jauzika,
gau beltzean hasten ñauka ?

Bi sagutxo azpiko soroan¹
arramantzan² eta dantzan.
Gatu loditxo ikustean,
ziu ! gorde dira xixtuan.


Errepika (bis) :

**Miau miau miau miau
miau miau mi-i-i-i-au**

Errepika.

¹ soroan : pentzean, belardian

² arramantzan : kalapitan, iskanbilan



HELBURUAK

AKTIBITATEAK	ERABIL ETA LAN DAITEZKEEN JAKINTASUNAK	ERABIL ETA LAN DAITEZKEEN ZEHAR JAKINTASUNAK
IRUDITU, SENDITU, SORTU Jostatuz, kantu bat ikasi. Irudimena garatu. Zuzen kantatu.	◆ Musika talde-ihardueretan parte hartu. ◆ Botzarekin jostatu eta haren ahalak ikertu. ◆ Bere burua espazioan eta denboran kokatu joko kantatu eta dantzatuen bidez.	◆ Autonomia erakutsi espazioan, gauzei eta jendeei buruz ; bere gorputza ezagutu; jokamoldea iharduerari egokitu; gorputz trebetasuna erakutsi. ◆ Jokamoldea talde egoerari egokitu ; parte hartu ; besteekin harremanetan jarri ; besteari behatu, bestea onartu eta errespetatu. ◆ Elgarrekin bizitzaren arauak ulertu eta onartu, gogokoak ez direnak barne. ◆ Estetikaren sendikortasuna ukan eta bere gustuak adierazi, beste obretan ere.
MUNDUAN IHARDUN. Mugimenduak koordinatu. Jestuen zehaztasuna landu.	◆ Oinarrizko egintzen hautu zabalena erabili (ibili, jauzi egin, bultzatu, tiratu,...). ◆ Egintzen burutzera ausartu. ◆ Besteekin parte hartu gorputz adierazpen ihardueretan eta jokoetan, arau soil batzuen arabera, horien balioa onarturik.	◆ Berdintasunak eta ezberdintasunak bereizi (itxurak/formak, koloreak, izariak, soinuak,...). ◆ Agindu/manu bat ulertu eta bete.
MINTZATZEN IKASI, IDAZMENARI OHARTU. Ahoskera landu.	◆ Hitza hartu eta molde ulergarrian bere burua adierazi. ◆ Testu laburrak (olerkiak,...) erran eta gogoan atxiki. ◆ Aho hizkuntzaren elementuak ezagutu (soinuak...), bereizi, baliatu (hitz jokoak), elgarri lotu (hitz berriak sortu...).	
ELGARREKIN BIZI.	◆ Elgarrekin bizitzeko arauak onartu.	

LEHEN KOPLA

Haurrak lerroan edo errondan daude. Kantua mimatzen dute.

- «Gatuak jauzika» erraitearekin, denek batera jauzi egin behar dute.
- Jauzi egin ondotik, haurrak potikoka (lau pataka) emaiten dira errepika denboran.

ERREPIKA

- Lau pataka egonez, gatuaren ñauka egiten dute kantuan bezala.

BIGARREN KOPLA

Haurrak bi taldetan emaiten dira : saguak eta gatuak.

- **Saguak**, binazka, xutik daude eta kantua mimatzen dute.
- «Gorde dira xixtuan» erraitearekin, etzaten (gordetzen) dira.
- Anartean, **gatuak** potikoka daude eta koplaren bukaeran jauzi egiten dute.

ERREPIKA

Haurrak berriz lau pataka emaiten dira.

- Gatuaren ñauka egiten dute kantuan bezala.

Oharra : erakasleak/animatzaileak, kantua antzeztu baino lehen, finkatu behar du zein diren bigarren koplari saguak izanen diren haurrak eta gatuak izanen direnak.

☺ Marrazkia margo ezazu.

Osatzeko, entzun :

- *Duo de chats* KDa. Rossini. Disques ADES.
- *Domestic animals and pets. Animaux domestiques et familiers. Animaux domésticos.* KDa. Auvidis distribution.
- *Gure gatuak Pitxitxi.* Labèguerie.
- *Gatu ta sagu. Marijane kanta zan!* KDa. Oskorri.
- *Xoria kaiolan. Marijane kanta zan!* KDa. Oskorri.



